



OF 031/2020

FORU AGINDUA / ORDEN FORAL

Lurralde Plangintzako Zerbitzuak 2020ko otsailaren 27an egindako txostenak ezartzen duen bezala, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren Legegintzaldiko Planaren arabera, beharrezkoa da Zehaztasun Handiko Nibelazio Geometrikoko lanekin jarraitzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoan azpiegitura geodesiko bat ezartzea eta mantentzea errazteko.

80ko hamarkadan, Gipuzkoak Zehaztasuneko Nibelazio Geometrikoko Sarea izan zuen, eta urte batzuk geroago EAEko Nibelazio Sarea gehitu zitzaion. Gipuzkoako NP sare horretan, zeregin topografikoetan erabili ohi den horretan, beharrezkoa da gaur egun desagertutako seinaleak birjartzen ari diren zenbait bide-zati berriro nibelatzea, bai eta hainbat eraztunetako zenbait tartetan ere, non azterketa- eta kalkulutresnek agerian utzi dituzten bere garaian detektatu ezin diren eta eredu globalei egokitzeko beharrezkoak diren funsgabetasunak. Nahitaezkoa da Nibelazio Sarearen berrikuspen hori behar bezala lotuta egotea IGNren REDNAP proiektuarekin, Europako erreferentziako eredu bertikalekin (EUVN) lotzen duena.

Azpiegitura hori mantentzea eta hobetzea ezin du bere gain hartu Lurralde Plangintzako Zerbitzuak dituen giza baliabideekin, eta doitasun handiko ekipamendu teknikoa behar du, zerbitzu horretan ez dagoena. Zeregin hori baliabide propioekin betetzeko ezintasunaren ondorioz, Zerbitzuak zerbitzu-kontratu bat sinatzea proposatu du.

Horretarako, kontratazio hori arautzen duten Administrazio Klausula Berezien eta Preskripzio Teknikoen Agiriak idatzi dira. Kontratuaren iraupena 10 hilabetekoa izango da. Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua 96.424,01 eurokoa izango da (BEZa barne), eta balio zenbatetsia 79.689,26 eurokoa.

Hala, bere eskumenak erabilita, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Foru Diputatuak,

Tal como establece el Informe emitido por el Servicio de Planificación territorial el 27 de febrero de 2020, de acuerdo al Plan de Legislatura del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, es necesario continuar los trabajos de Nivelación Geométrica de Alta Precisión que facilitarán la implantación y mantenimiento de una Infraestructura Geodésica en el Territorio Histórico de Gipuzkoa

Durante los años 80 Gipuzkoa se dotó de una Red de Nivelación Geométrica de Precisión, a la que años más tarde se añadiría la Red de Nivelación de la CAPV. En esta red NP de Gipuzkoa, de uso habitual en tareas topográficas, es necesario volver a nivelar diversos tramos donde actualmente se están reponiendo señales desaparecidas y en tramos de diversos anillos donde las herramientas actuales de análisis y cálculo han puesto de manifiesto inconsistencias no detectables en su momento y necesarias para ajustes a modelos globales. Es imperativo que esta revisión de la Red de Nivelación esté debidamente enlazada con el Proyecto REDNAP del IGN que enlaza con los modelos verticales de referencia europeos (EUVN).

El mantenimiento y mejora de esta infraestructura no puede ser asumido con los recursos humanos del Servicio de Planificación Territorial y precisa equipamiento técnico de alta precisión que con el que no cuenta en el citado Servicio. La imposibilidad de satisfacer con medios propios esa tarea ha llevado al Servicio a proponer la suscripción de un contrato de servicios al efecto.

A tal efecto, se han redactado los correspondientes Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas que regulan dicha contratación, cuya duración será de 10 meses, estableciendo un presupuesto base de licitación de 96.424,01 euros (IVA incluido), siendo el valor estimado de 79.689,26 euros.

En su virtud, en el ejercicio de sus competencias, la Diputada Foral de Movilidad y Ordenación del Territorio,



EBATZI DU

LEHENENGO.- "GIPIZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ZEHAZTASUN HANDIKO ZORTZIGARREN NIBELAZIO KANPAINA" (ERREF.: 2020035CO220) zerbitzu kontratuaren kontratazio-espedita onartzea, 96.424,01 euroko oinarritzko lizitazio-aurrekontuarekin (79.689,26 € gehi 16.734,75 € BEZ kontzeptuan, % 21) eta 10 hilabeteko iraupenarekin. Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 159.1 artikulua araberak, prozedura ireki sinplifikatua erabiltzea erabaki da lizitaziorako.

BIGARREN.- Onartzea baldintza administratiboen eta baldintza teknikoaren agiriak, ebazpen honen lehen atalean adierazitako zerbitzuaren kontratazioa arautzen dutenak, alegia.

HIRUGARRENA.- Baimena ematea 96.424,01 €tako gastua egiteko, aipatutako kontratuak eragindako eginkizunak bete ahal izateko gastuei aurre egiteko, 1 0620.220.670.05.01 kontu sailaren kargura.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete, interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute foru diputatuari horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2020ko maiatzaren 15a / San Sebastián, 15 de mayo de 2020

**MUGIKORTASUNEO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO FORU DIPUTATUA/
DIPUTADA FORAL DE MOVILIDAD Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO**

Sin.:/ Fdo.: **Rafaela ROMERO POZO**

RESUELVE

PRIMERO.- Aprobar el expediente de contratación para el servicio de "OCTAVA CAMPAÑA DE NIVELACIÓN GEOMÉTRICA DE ALTA PRECISIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA" (Ref.: 2020035CO220), con un presupuesto base de licitación de 96.424,01 euros (79.689,26 € más 16.734,75 € en concepto de IVA, 21%) y 10 meses de duración, acordando, en atención al artículo 159.1 de la Ley 9/2017 de contratos del Sector Público, la utilización del procedimiento abierto simplificado para su licitación.

SEGUNDO.- Aprobar el correspondiente Pliego de Cláusulas Administrativas así como el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán la contratación del servicio expresado en el apartado primero de la presente resolución.

TERCERO.- Autorizar un gasto de 96.424,01 € al objeto de hacer frente a las obligaciones que se deriven de la prestación de dicho servicio con cargo a la partida presupuestaria 1 0620.220.670.05.01 2020.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra la misma RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.